



JARDUERAK EGITEKO IRIZPIDEAK

Ekintzek irizpide hauek izan behar dituzte oinarri, Murrizketaren Europako Astearen baitan sartuko badira:

- HONDAKINEN PREBENTZIOA: ez dira aintzat hartuko hondakinak bereizi, birziklatu, gaika bildu eta tratatzeari buruzko jarduerak.
- eta adierazi behar dute PREBENTZIOA dela hondakinaren kudeaketako arazoetan HIERARKIAREN LEHENTASUNA.

Ekintzen gaiak:

Jarduera orok kategoria hauetako batean edo hainbatean sarturik egon behar du:

- **hondakin gehiegi sortzen direla sentsibilizatzeko jarduerak:**
hondakin-prebentzioaren kontzeptua ingurumen, soziologia eta ekonomiaren argitan azaltzea edo eguneroko keinuak sustatzea. Adibidez, prebentzio-kontzeptuari buruzko tailerrak eta mintegiak burutzea; zure enpresan/erakundearen hondakinak murrizteari buruzko kanpainak antolatzea, etab.
- **hobeki ekoiztea:**
hondakinaren produktuaren bizitza-zikloaren fase guztietan prebenitzea eta/edo enpresari lotutako prozesuetan, bulegoko hondakinak barne. Adibideak: enbalajeak edo bilgarriak murriztea, ekodiseinua ...
- **hobeki kontsumitzea:**
erosketan portaera arduratsua sustatzea, ekodiseinatutako produktuei eta etiketa ekologikoa duten produktuei lehentasuna emanez, produktuak ontzi handietan aleka erosituz, alokairua eta mailegua sustatuz, etab.
- **produktuen bizitza luzatzea:**
konponketa sustatzea, produktuak ematea, gauzei bigarren bizitza bat ematea; adibidez, bigarren eskuko merkatuen bidez, edo truke-jardueren bidez, etab.
- **hondakin gutxiago botatzea:**
etxeko konpostajea sustatzea eta eguneroko azturak hobetzea; elikagairik ez xahutzea, produktuen iraungipen-atei erreparatzea... Adibideak: etxeko eta eskolako konpostaje-esperientziak zabaltzea, edalontzi itzulgarriak erabiltzeko ekimenak bultzatzea, etab.

Bestelako alderdiak:

- Jarduerak, nolahi ere, Hondakinaren Prebentziorako Europako Astearen egin beharko dira, hau da, **2011ko azaroaren 19tik 27ra**. Era berean kontuan hartuko dira hondakinaren prebenitzeko ekintzen emaitza diren jarduerak edo hondakinaren prebenitzeko ekintzak azaltzen dituzten jarduerak, betiere Astearen aurretik egindakoak.
- Jardueraren **helburua ez da izan inolako marka, produktu edo egitura jakinik sustatzea** (eraikina, eskola, enpresa, etab.).
- Jarduera orok **ebaluazio kualitatiboa eta kuantitatiboa izan behar du**.
- Jarduerak edozein erakundek egin ditzake: administrazio publikoek, eskolek, unibertsitateek, enpresek, GKEk, elkarteek....

